


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra, Lester Álvarez eta José Ramón Ais artistekin

Tailer honetan, 2018an Azkuna Zentroko artista egoiliarak izan diren [Lester Álvarezek](#) eta [José Ramón Aisek](#) sorkuntzako prozesuen azterketa egin nahi dute, [La verdadera noche](#) erakusketa (Benetako gaua, BAT Espazioa. Lantegia 2) eta aurreko proiektu batzuk abiaburutzat hartuta. Elkarrizketa horretan, gehiago sakonduko da bi artisten praktika artistikoak definitzen dituzten estrategietan, hainbat diziplinaren arteko gurutzaketa baita, zinema literatura-edizioa, pintura, argazki-collagea, paisaia-diseinua eta azterketa sozialak eta politikoak barnean hartuta.

[Lester Álvarezek](#) eta [José Ramón Aisek](#) ikerketari buruz dituzten postulatuak partekatuko dituzte tailer honetan. Hori funtsezkoa da bi artistentzat, eta artelanaren sendotasun formala eta kontzeptuala bilatzeko prozesutzat har daiteke, baina helburutzat ere bai, hau da, artelana irekita dagoela, beste erabilera batzuetarako eskuragarri dagoen jakintza-iturri gisa.

[La verdadera noche](#) erakusketa dagoen aretoan bertan egingo da tailerra, eta, beraz, zuzenean jarri ahal izango da harremanetan lanekin.

////////////////////////////////////

Urtarrilak 7 eta 8
Asteartea eta asteazkena

17:30 - 20:30
Lantegia 2. BAT Espazioa
Helduentzat

20 lagun gehienez
Sarrera dohainik; aurrez,
urtarrilaren 5a baino lehen,
izena eman behar da
azkunazentroa.eus helbidean,
tailerrean parte hartzeko
motibazioa aipatuta

////////////////////////////////////



Lester Álvarez eta José Ramón Ais